

Bihotz errukitsua

IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINEN
PASTORAL IDAZKIA

GARIZUMA - PAZKOA 2015

AURKIBIDEA

Sarrera (1)

I. Jainko guztiz errukiorra (3)

1. Jauna bihozbera eta errukiorra da (4)
2. Eta Errukia “haragi egin zen” (9)
3. Eliza, errukiaren tenplua (12)

II. Pastoral aldatzea eta ateratzea bilatzen duen Eliza (16)

1. Bihotz-berritze pertsonala (17)
2. Adiskidetzaren sakramentua (21)
3. Elkartearen aldatzea: ateratzea bilatzen duen Eliza (27)
4. Espirituaren gidaritzapean (31)

III. Errukiaren beharrea dauden eremuak (36)

1. Gizarte bizikidetasuna (37)
2. Familia (45)
3. Behartsu eta baztertuak (52)
4. Sufrimendua eta gaixotasuna (60)
5. Gizarteko arlo batzuk (65)

IV. Lekuko eta mezulari (71)

V. Bukaera (74)

Bihotz errukitsua

Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Pastoral Idazkia

Bihotz errukitsua

SARRERA

1. *Evangelii Gaudium* aholku-hitz apostolikoa Frantzisko Aita Santuak Elizari oparitu dion dohain handia izan da. Agiri honen osagai dira Aita Santuaren pastoral esperientzia sakona eta elizaren irakaskuntza jasotzen duten hainbat agiritako argibideak, hala nola, Vatikanoko II.a Kontzilioko *Gaudium et Spes* Elizari buruzko pastoral konstituziokoak eta *Lumen Gentium* Elizari buruzko konstituzio dogmatikokoak; Paulo VI.a Aita Santu dohatsuaren *Evangelii Nuntiandi* entziklikakoak; Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidekoak eta Latinoamerikako Gotzainen Batzarraren V. Biltzarreko Aparecidako 2007ko agirikoak: *Jesukristoren ikasle eta misiolari, gure herriek Berarengan bizia izan dezaten*.

2. Aholku-hitz honetan, Aita Santuak ebanjelizaziorako dei berria egiten digu, Berri Onaren poza jasotzeko, testigantza emateko eta iragartzeko deia. Eliza osoarentzako pastoral egitaraua da hein batean: datozen urteetan zein bidetatik aurrera egin erakusten digu. Gure lekuko Elizek gogo handiz hartu dute agiri hau. Bere harrera, hausnarketa eta gauzatzea lantzen dihardugu. Gure pastoral ildoek eta eguneroko lanak burubide hori hartu nahi dute inspiraziotzat eta Espirituaren dohaina eskatzen dugu gure bizitzako eta jarduera ebanjelizatzaileko zirrikitu guztietan sartzeko era erakuts diezagun.

I. JAINKO GUZTIZ ERRUKIORRA

3. Tradizio teologiko nagusian, Akinoko san Tomasek, Guraso Santuen arrastoari jarraiki, zera dio: “*errukia da Jainkoaren berezkoa, eta hortxe agertzen da beste inon baino argiago bere ahalguztiduntasuna*” (Teologia gorena, 2-2, q. 30, a. 4). Errukiaren botikak Elizaren bizitza eta jarduerarako duen garrantzia gogoratu zuen san Joan XXIII.ak Vatikanoko II. Kontzilioaren hasierako ekitaldiko hitzaldian. Aita Santuen irakaspenak irmotasunez azpimarratu du errukiaren balio handia ebanjelizazio berriturako eta baita gizarte bizitzaren antolakuntza duin eta zuzenerako ere. Honen haritik, Frantzisko Aita Santuaren irakaspenaren eta egunez egun eskaintzen digun lekukotasunaren funtsezko osagaietako bat errukiaren nagusitasuna da: “*Jainkoak eskaintzen digun salbamena bere errukiaren lana da*” (EG 112). San Joan Paulo II.ak berak ere, *Dives in misericordia* –errukian aberatsa- goiburudun entziklika atera zuen Jainko Aitari buruz. Baieztapen honen sorburua funtsezko errebelazio hau da: Jainkoa maitasuna da. Horixe da bere Misterioaren barru-barruko errebelazioa. Eta gu, maitasun horren fruitu gara. San Joan da funtsezko alderdi honetan beren-beregi barruraino sartu den apostolu eta ebanjelaria: Jainkoak maite izan gintuen lehenengo eta guk Kristorengan agertzera eman zaigun maitasun hori ezagutu dugu.

1. Jauna bihozbera eta errukiorra da

4. Jainkoaren maitasuna erruki bihurtzen da gizakiak, eta batik bat gizaki bekatariak, dituen mugen eta bere izaera amaikorren aurrean. Itun Zaharrean, Jainkoa erruki bezala agertzen zaigu, hain zuzen ere Itunaren testuinguruan. Zirrargarria da Irteera liburuko idazkia non Jainkoak, Moisesen aurrean, herriarekin Ituna egitean, bere intimitatea agertzera ematen digun, Bere buruaz hauxe adieraziz: “*Jauna! Jauna! Jainko bihozbera eta errukiorra, haserregaitza eta onginahiz eta leialtasunez betea! Mila belaunalditaraino onginahiari eusten diona; gaiztakeria, errebeldia eta bekatua barkatzen dituena*” (Ir 34, 6-7). Eta Jainkoak

herriarekin egiten duen Itunaren alde bere burua eskainiz erantzuten dio Moisesek. Itun hori, Jainkoaren maitasunaren adierazpena baizik ez da: *“Jauna, gogoko banauzu, zatoz gurekin, arren! Herri hau burugogorra da, bai; baina zuk barkatu gure gaiztakeria eta bekatua, eta har gaitzazu zeure ondareztat”* (Ir 34, 9).

5. Jainkoaren errukiaren adierazpena Ituna da, Jainkoak berak beti leial beteko duena, nahiz eta herriaren desleialtasunak etengabeak izan. San Gregorio Handiak dioenez: *“Erruki gorenak ez gaitu bertan behera utziko, ezta geuk uzten badugu ere”* (Hom. 36 super Ev.). Itun hau dohaina eta grazia da, batez ere etsipenezko eta heriotzazko uneetan. Horra hor errukia hitzaren sorburua: Giza miseriara bihurtzen den bihotza, gizakia besarkatzen eta hauskortasunetik, barneko hondamenditik eta bekatutik askatzen duen eta berriz ere Itunera itzularazten duen Jainkoaren bihotza. Hain zuzen ere, desleialtasunaren eta sufrimenduaren aurrean jadesten du bere esanahi sakona errukia hitzak. Jainkoaren leialtasuna bere ibilian zauritua eta eraitsia izan dena salbatzera ateratzen da. Errukia gupidatik haratago doa: eraginkorra da, irteera da, amaigabeko bilaketa da salbatzeko, sendatzeko, suspertzeko, bizkortzeko.

6. Idazteunean, errukia eta Jainkoaren leialtasuna lotuta daudela ikus dezakegu. Baina, gainera, Jainkoarena, barru errukitsutzat jotzen du (Lk 1, 78). Zer esan nahi du horrek? San Joan Paulo II.ak *Dives in misericordia* bere entziklikan gogoratu zuenez, Itun Zaharrean errukia hitza *hesed* eta *rahmin* hitz aramearren itzulpena da. Lehenengoak Jainkoaren ontasuna adierazten du, bere maitasuna, Itunarekiko leialtasuna. Bigarrenak, amaren alderdi bat nabarmentzen du, amaren erraiak. Amak bere semeari dion maitasun leiala da. *Hesed* hitzak adierazten duen leialtasun onberaren alderdi bat, amari dagokiona, esango genuke. Honela, *rahmin* hitzak samurtasuna, eroapena eta ulermena, azken batean, barkamenerako prestasuna adierazten ditu.

7. Zertzelada hauekin, barru errukitsuak, Jainkoaren maitasunaren, ontasunaren, leialtasunaren, samurtasunaren, eroapenaren eta barkamenaren adierazpen bezala, bibliako tradizioarentzat duen esanahi sakona antzeman dezakegu. Errukia, Jainkoak gizaki ahul eta bekatariaren aurrean duen agerpen eta jardura da. Amaren erraiekin maitatzen duen Jainko Aitaren adierazpena da: *“Ahaztu ote dezake amak bere haurtxoa edo bere sabeleko umeari errukia ukatu? Ba, amak haurra ahaztuko balu ere, nik ez zaitut ahaztuko”* (Is 49, 15).

8. Iluntasunaren eta utzikeriaren erdian, oinaze eta etsipenaren erdian, gizaki orok babeska eska diezaioke Jainkoari honek entzun eta lagundu egingo dionaren ziurtasunarekin: *“Ekarri gogora, Jauna, zeure errukia eta maitasuna: betidanikoak dituzu”* (Sal 25, 6). Baieztapen hau Isaiasen miresmenean adierazten da: *“Ez da inoiz entzun, ez da inoiz aditu, ez ikusi, zuk ez beste jainkoren batek berarengan itxaro duenaren alde horrelakoak egin dituenik”* (Is 64, 3).

2. Eta Errukia “haragi egin zen”

9. Jainkoaren samurtasun eta erruki hau Kristorengan, bere Seme maitearengan, gugatik gizon egin zenarengan agertu dira. Berarengan, Jainkoa gure bila atera da: *“Baina Jainkoak, hain baita errukitsua eta halako maitasun neurrigabez maitatu baikaitu, geure bekatuengatik hilik geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batera”* (Ef 2, 4-5). Jainkoaren errukia haragian aditzera eman zaigula, giza aurpegi eta bihotzez jantzi dela esan dezakegu: *“Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion, haren gan sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan”* (Jn 3, 16). Kristorengan behin betiko Ituna, Itun berri eta betierekoa gauzatzen da. Beste behin ere, errukia Itunean adierazten da, oraingoan Kristoren Pazko Misterioan gauzatutakoan. Bere bizia ematen du Berak errukizko ekintza goren bezala, Berarengatik, Berarekin eta Berarengan bizi gaitzen. Errukizko adierazpenik gorena den bekatuen barkamenak beti leiala den Haren Ituna berrezartzen du.

10. Jesusengan gizalegez agertzen da Jainkoaren errukia. Bere keinu eta ekintzak, bere jarrera eta sentimenduak gizakiaren sufrimendu, infernu eta bakardade guztiekin bat egiteko gauza dira. Giza moldez agertzen den jainkozko errukia da eta miresmen eta eskerronezko, konfiantza eta gorespenezko sentimen-

duak eta jarrerak eragiten ditu guregan. Hebrearrei idatzitako gutunak era hunkigarrian adierazten du: *“Izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz gupidatu ez daitekeen norbait, zeren eta bera ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitzen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren onginahiaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun”* (Hb 4, 15-16).

11. Harrigarria da nolatan hurbiltzen den Kristorengan Jainkoaren samurtasuna gizaki sufrimendu orotara: Bat egiten du bekatariekin, gaixoekin, behartsuekin, etsipena hartutakoekin, errukirik ezagutzen ez dutenekin, itxaropena galdu dutenekin, kondenatuekin, hilzorian daudenekin... Geuri ere iritsi zaigu erruki hori, nekaldi eta gurutzean bete-beteagan agertzen den errukia. San Alfonso Maria de Ligoriok dioenez: *“Ez dagokio zurea bezalako erruki handiari gurea bezalako miseria handiaz ahaztea”* (Ikustaldiak Sakramentu Guztiz Santuari, 16). Gizakiaren mesprezu eta gaitzespenaren gainetik, Jaunaren errukia beti dago zain, beti itxaroten du, eskua luzatu eta erakarri egiten du: *“Baina Kristo, gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna... Zeren eta, etsai ginelarik, Jainkoak bere Semearen heriotzari esker berekin baketu bagintuen, behin baketuz gero, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko beraren biziaz!”* (Erm 5, 8. 10).

3. Eliza, errukiaren tenplua

12. Kristorengan agertutako errukia tenplu gisa eraikitzen da. Kristo da Jainkoaren errukiaren tenplua: *“Desegizue tenplu hau eta hiru egunetan berreraikiko dut... Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen”* (Jn 2, 19. 21). Bataioaren bidez gehituak izan gara errukizko tenplu honetara: *“Hurbil zaitezte Jaunarengana. Bera da harri bizia, gizonak baztertuta, baina Jainkoaren begietan aukeratuta eta bikaina. Horrela, zuek ere harri biziaz osaturiko espirituzko tenplu egingo zaituzte Jainkoak, eta apaiz sagaratuko, Jainkoari atsegin zaizkion espirituzko opariak Jesu Kristoren bitartez eskaintzeko* (1 Pe 2, 4-5).

13. Tenplu hau, errukizko etxea, Eliza deitzen da, hau da, Jainkoak deitutako errealitatea, gure ekimenetik ez ezik bere deitik sortzen dena. Pedro apostoluak azaltzen du nola izan garen aukeratuak eta gehituak benetan bizidunen eremua den tenplu hori eraikitzeko. San Agustinek ere hitz ederrak darabiltza hori adierazteko: *“Bizi nahi duenak badu non bizi, badu zertatik bizi. Hurbil dadila, sinets dadila, sartzea onar dezala suspertu ahal izateko. Ez dezala kideengandik ihes egin”* (In Ioh XXVI, 13). Horregatik Eliza, Frantzisko Aita Santuaren hitzetan, kanpaina-ospitalearen antzekoa da, hantxe ukitu gaitu eta iritsi zaigu Jainkoaren errukia.

14. *“Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet. Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere”* (Jn 20, 21-23). Eliza, errukiaren tenplua, kanpaina-ospitalea, Jainkoarekin elkartzearen sakramentua da: Espiritu Santua gure gainera isurita, gure gizatasunaren erabateko berritzea bizi izateko lekua da. Eta errukizko etxe honetatik bidaliak gara bidegurutzetara. Erregearen semearen ezteietan bezala, bizitzako bidegurutzetara, kanpoalde existentzialetara bidaliak gara, denak, bereziki behartsuak, gaixoak, etsipena hartutakoak eztei-banketera gonbidatzera (ik. Mt 22, 1-14). Parabola hau eta beste hainbat jasotzen dira Idazteunean bere errukia agertzera ematen duen eta gu horren lekuko, mezulari eta eramaile bihurtu gaituen Jainkoaren Erreina deskribatzeko.

15. Jainkoaren errukia estu lotuta dago etengabe bidera ateratzen den Elizarekin, *“behartsuei berri ona adieraztera, gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera, zapalduak askatzera eta Jaunak onginahi azalduko duen urtea hots egitera”* (ik. Lk 4, 18-19) bidalitako Elizarekin. Frantzisko Aita Santuak Jainkoaren laguntasunarekin egia bihurtzera bultzatuz transmititu nahi digun ideia bera da: *“Debaldeko errukiaren tokia izan behar du Elizak, mundu guztia onartuta, maitatuta eta barkatuta izango den tokia, Ebanjelioaren bizi onaren arabera bizitzera adoretuta izango den tokia”* (EG 114).

II. PASTORAL ALDATZEA ETA ATERATZEA BILATZEN DUEN ELIZA

16. Kanpaina-ospitale honetan arreta jaso izan duten lehen gaixoak geu izan gara. Jainkoak lehentasuna eman digu –“primerear”-. Berak maite izan gaitu lehenengo: *“Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela”* (Jn 15, 16). Bada kontu harrigarri bat Jesusen ikasleei dagokienez: Berak aukeratu izan ditu, bere garaiko eskola errabiniko eta filosofikoetan gertatzen zenaren aurka. Berak aukeratu gaitu geu ere, ez gure merituengatik, bere borondatearen arabera baizik. Jaunaren “lehentasun-emate” honek miresmena eta eskerrona eragiten ditu San Paulorengan: *“Baina Jainkoak, hain baita errukitsua eta halako maitasun neurrigabez maitatu baikaitu, geure bekatuengatik hilik geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batera –onginahi hutsez salbatu zaituzte!-; eta Kristo Jesusekin batera eta berarengan piztu gintuen eta zeruetan eserarazi”* (Ef 2, 4-6).

1. Bihotz-berritze pertsonala

17. Horregatik, Jainkoaren jokamolde hori dela-eta, gizakiaren lehen jarrerak eskerroneko harrerarena izan behar du. Berak egiten gaitu gai *“bai nahi izateko eta bai burutzeko”* (Flp 2, 13). Bera heldu zen guregana lehenengo eta jaiotza berria burutzen du guregan uraren eta Espirituaren bitartez. Jainkoaren askatasunaren eta giza askatasunaren arteko bategite erabakigarria da, bihotz-berritzea deitzen duguna; elkartze horren bidez, Harengana bihurtzen gara, bere grazia onartzen dugu, bere erruki eta barkamena esperimentatzen ditugu eta ikasle izateko bideari ekiten diogu. San Bernardok dioenez: *“Gure begiak itsu zeuden. Etzanda geunden gelditurik gure ohatilan, Jainkoaren handitasunera iristeko ezgauza. Horregatik jaitsi zen goitik gure arimen salbatzaile adeitsu eta sendagilea”* (Abendu aldiko I. Igandeko sermoia, 78). Bekatutik, bihotz eroso eta zekenaren goibeltasun indibidualistatik, gozamen hutsa bilatzetik, norbere interesetatik, geure baitan itxitako eta geure interes hutsetan oinarritutako bizitzatik askatzen gaituen Kristorekin bat egitearen poztasuna da. *“Erabaki etikoak edo ideia bikainak ez garamatza kristau izatera; biziari etorkizun berria eta, horrekin, joera erabakigarria ematen dion gertaerarekin, Pertsonarekin bat egitean bihurtzen gara kristau”* (Benedikto XVI.a, Deus caritas est, 1). Jainkoaren maitasunarekin bat egitea gure kontzientzia isolatutik eta nork bere burua erreferentziazat hartzetik askatzen gaituen zorioneko adiskidetasuna da. Honela, gizaki baino gehiago garenean gara gizaki (ik. EG 8), Jainkoaren seme eta alaba gara benetan.

18. Itun Zaharrean, 50. salmoa da errukiari eskaintzen zaion kanta nagusia. Dabid erregeari egozten zaio, Natan profetak bisita egin zionean, Betsaberi lotu zitzaioela salatuz Urias bere senarraren heriotza erdietsiz, gainera (ik. Sal 50, 1. 2). Eta deiadar batez hasten da, hain zuzen: *“Erruki, nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz, suntsitu nire hobena, zeure neurrigabeko gupidaz. Garbi nazazu oso-osorik neure errutik, garbitu neure bekatutik”* (Sal 50, 3-4). Bere bekatuaz jabetuta eta hondoratuta, Jainkoak babesa eta barkamena emango dizkiola sinetsita, Haren errukian bere itxaropen osoa jartzen duenaren garrasi lazarria da. Dabid erregearen garrasia argitasunez eta apaltasunez betetakoa da: *“Aitortzen dut, bai, neure hobena, begi aurrean dut etengabe neure bekatua”* (Sal 50, 5). Erregeak argitasun handia jadetsi du, jakinduria irakatsi zaio bere bizitzaren egia eta sakontasuna ezagut ditzan (ik. Sal 50, 8). Jakinduria hau Jainkoaren errukiaren fruitu ere bada. Berak, bere aldetik, Ituna hautsi egin duela antzeman du, eta haustura gertatu da bere bihotzaren sakonean. Barkamena, osoa eta behin betikoa izango da Kristoren odolaz itxitako Itun berriaren bidez. Horixe adierazten du Jesusek azken afarian: *“Edan guztiok honetatik, hau nire odola baita, Jainkoarekiko ituna berrituko duena, bekatuak barkatzeko guztien alde isuria”* (Mt 26, 2-28).

19. Kristoren odolean ematen zaizkigun barkamenak eta salbamenak beren gain hartzen dute eta osotasuna eramaten 50. salmoak adierazitakoa. Pazko-misterioak, eskainitako gorputzak eta isuritako odolak behin betiko Ituna ezartzen dute, bekatuen barkamena delarik bere eragin nagusia. Jaun berpiztuak,

astearen lehen egunean agertu zenean, putz egin zuen ikasleen gainera eta bidali egin zituen, beste ezer baino lehen, bidegabekeria ororen eta giza zoritxar guztien sakonean eta sustraian dauden bekatuak barkatzeko ahalmenarekin.

20. Elkartze eta barkamenaren esperientzia hau Zakeorena da. Jesus, Jerusalemeko bidean, hiri hartako kaleetatik zehar zihoan. Zerga-biltzaile hau zuhaitz batera igo zen Jesus pasatzen ikusteko, eta berau parera heldu zenean, *“gora begiratu eta esan zion: ‘Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta’”* (Lk 19, 5). Gizon hura biziki harrিতuta zegoen. Seguruenik aditu izango zuen zer bait Jesusi buruz, gaixo eta bekatarietara eskaintzen zien arretari buruz. Baina inoiz burutik pasatu ere ez zitzaion egingo, egun batean berari begiratuko zionik, bere izenez deituko zuenik -nork irakatsi ote zion?- eta bere etxean gelditzea eskatuko zionik. Jesusek Zakeo bere izenez deitu izanak ondo ezagutzen duela adierazten du. Denok gara, era batera edo bestera, Zakeo. Denok ezagutzen gaitu Jesusek geure izenez. Berak badu gure amarruen, desleialtasunen, gezurren, bekaizkerien berri. Eta, hala ere, bere errukia erakutsi du guregan, maite gaitu eta salbamera eskaintzen digu. Ebanjelizatzea, hain zuzen ere, Berri On hau ezagutzera ematea da, esperientzia hau, Kristok egin digun dohaina, jakinaraztea.

2. Adiskidetzaren sakramentua

21. Jainkoak hainbat bidetatik isurtzen du bere errukia gure gainera. Baina Jainkoak, izugarritzko maitasunez, bere errukiarentzako bide zehatza, ikusgarria eta ohikoa ezarri nahi izan du gurekin sakramentuen bitartez eta, bereziki, Adiskidetzaren sakramentuaren bitartez. Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidean, hauxe jasotzen da: *“Bere ama-arduran, Elizak gure bekatuen barkamen hutsa baino gehiago den eta bereziki Adiskidetzaren sakramentuan gauzatzen den Jainkoaren errukia ematen digu”* (EKaren Kristau-ikasbidea 2040).

22. Beharbada, nekeza egingo zaigu Jainkoaren barkamenaren haragitze eta pertsonalizatze hori ulertzea. Harrigarria da behinik behin, batzuetan, bere errukiak eskaintzen digun apaltasunaren bidea ez ulertzea. Paradoxa hau aipatzen du Frantzisko Aita Santuak Penitentzialaritzaren Apostolokoari eskaintako hitzaldian: *“Errukia da Ebanjelioaren bihotza! Berri ona da: Jainkoak maite gaitu, bekataria beti maite du eta maitasun horrekin Berarengana erakartzen du eta bihotz-berritzeko deia egiten dio. Ez dezagun ahaztu, sarritan, fededunei kostatu egiten zaiela aitortzea, arrazoi praktikoengatik, beste gizon bati norbere bekatuak aitortzeko zailtasun naturalagatik... Aitortza ez da zigor-auzitegia, barkamenaren eta errukiaren esperientzia baizik!”* (Frantzisko Aita Santuak Penitentzialaritzaren Apostolokoari, 2014.eko martxoaren 28a).

23. Frantzisko Aita Santuak keinu profetikoa egin zuen San Pedro Basilikan denon aurrean aitortzean, sakramentu hau emateko eseri baino lehen (2014.eko martxoaren 28a). Adiskidetzaren sakramentuan, non barkamen hau sakramentu-erara hartzen dugun, geure errua aitortzeko gonbitea ere egiten zaigu, Dabid erregearen antzera, gure bekatuen errealitatea *“bihotz leialez”* (ik. Sal 50, 8) adierazteko, Jainkoaren erruki mugagabe barkatuak izan daitezten eta *“poz gaitzen berriro bere salbamenaz”* (Sal 50, 14). Bekatuen akusazio partikularra ez da murriztuko bekatari sentitzearen kontzientziaren adierazpen orokorrera, Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidean esaten denez, *“bekatuen aitortza apaizaren aurrean sakramentu honen funtsezko atala”* delako (EKaren Kristau-ikasbidea 1424).

24. Txunditu egiten gaitu zer nolako freskotasunaz proposatzen digun Aita Santuak haurren zintzotasuna, zehaztasuna eta gardentasuna bekatuen aitortzean, helduontzako erreferentzia bezala. Honela azaltzen zuen bere goizeko homilietako batean Santa Marta elizan: *“Txikiek jakinduria hau dute. Haurrak, aitortzera datorrenean, inoiz ez du gauza orokorrik esaten. ‘Aita, hau eta beste hau egin diot izebari, aurreko batean hitz hau esan nuen’ -eta hitza esaten dute!-. Zehatzak dira, e? Eta egiaren umiltasunaren jabe dira. Eta*

guk gure miserien errealitatea ezkutatzeko joera dugu. Baina gauza eder bat ere antzematen da: Gure bekatuak aitortzen ditugunean, Jaunaren aurrean izatean, lotsaren grazia sentitzen dugu beti. Jainkoaren aurrean lotsatzea, grazia da” (2013.eko urriaren 25a).

25. Aita Santuak dei egiten die apaizei bihotz-zabaltasunez eta ahaleginez gara dezaten errukizko zerbitzu eder hau Adiskidetzearen sakramentuan. Beraiek dira errukiaren ministroak, Jainkoaren barkamenaren zerbitzariak: *“Apaiza bekatuen barkamenerako bitartekoa da. Ministro bezala, Jainkoaren izenean, eskaintzen duen zerbitzua tentuz hartzekoa da eta bihotza bakez edukitzea eskatzen dio, fededunak gogor ez hartzea, apala, onbera eta bihozbera izatea, bihotzetan itxaropena ereiten jakitea, eta, batez ere, Adiskidetzearen sakramentura hurbiltzen diren anaia eta arreba, sendabidearen bila Jesusengana hurbiltzen ziren beste hainbat lagunen antzera, barkamena jadetsi nahi dutela konturatzea” (Frantzisko Aita Santua, Audientzia orokorra, 2013.eko azaroaren 20a).*

26. Barkamen honek, era berean, berarekin dakar misioa: *“Zure bideak erakutsiko dizkiet gaiztoei, eta zure-gana bihurtuko dira bekatariak” (Sal 50, 15).* Barkatua izan dena Jainkoaren errukiaren lekuko eta mezulari bihurtzen da, bidera ateratzeko prest dagoen adiskidetu da, horrela, barkatzen duen, duintasuna berreskuratzea dakarren, hautsitakoa berregiten duen erruki handi hau denei eramateko, Jainkoak bere herriarekin egindako Ituna berrezarri eta zauritutako seme-alabatasuna sendatu ahal izateko.

3. Elkartearen eraldatzea: ateratzea bilatzen duen Eliza

27. Bihotz-berritzeak ez digu bakarka eragiten bakarrik, elkartean ere, Eliza bezala, badu eraginik. Eliza ikasle misiolarien elkartea da. Frantzisko Aita Santuak bihotz-berritze pertsonalean oinarritutako eliz-, pastoral- eta misiolari-bihurtzera bultzatzen gaitu. Eliza osoari dagokio. Jainkoaren Herriak etengabeko eraberritzea behar du bere bokazioari leial eusteko.

28. Aita Santuak bereizketarako eta arazketarako, egituren eta bizitasun ebanjelizatzailea baldintza deza-keten egiteko moduen eraberritzerako deia egiten du (ik. EG 30). Egiturak baliagarri izango badira, suspertzen, eusten eta epaitzen dituen bizia edukiko dute. Baina, aldi berean, bizi berririk gabe, barne berrikuntza sakonik gabe, egiazko sen ebanjelikorik gabe eta Elizak bere bokazioari leial erantzun gabe, edozein egitura berri berehala usteltzen da (ik. EG 25, 26). Gure lekuko Elizetan egin behar dugu bereizketa hori, zein egitura, usadio eta jarrera berritu behar dugun ikusteko.

29. Jainkoaren errukia nabaritzen duen elkarreak bereizgarririk izatekotan, bat du nabarmena: komunioa Jainkoaren dohain eta Jainkoaren herriko kide bakoitzaren eta guztien eginkizun bezala bizi izatea. Honen haritik, ahalegina egin behar dugu Elizaren beraren edo eliztarren akats, hutsegite eta bekatuen aurrean bihozberatasunez jokatzeko. Vatikanoko II.aren esanetan (ik. LG 8), Elizak etengabe behar ditu berritzea eta araztea eta, horrezaz gainera, ezinbestekoak ditu bere seme eta alben samurtasuna eta errukia.

30. Bereziki, errukiak izan behar du artzainen eta eliztarren arteko harremanaren oinarria, horrek gure jarduera ebanjelizatzailearen sinesgarritasunari bultzada handia ematen diola jakinda: Ebanjelizazioa Elizaren egitekoa da (ik. EG 111) eta Eliza izatea, Aitaren Maitasunezko egitasmo handiarekin bat, Jainkoaren Herri izatea da (ik. EG 114). Pedoren lehen gutunean gure lana gogo onez, bihotz-zabaltasunez, elkartearentzat eredu izanez egiteko aholku ematen zaigu artzainoi (ik. 1 Pe 5, 2-3). Aurretik, apostoluak sentiera bateko, errukior eta apal izateko dei egiten die guztiei (ik. 1 Pe 3, 8). Aurrera egin behar dugu, era berean, gure lekuko Elizetan azaltzen diren sentsibilitate eta espiritualtasun desberdinen arteko hartu-eman adeitsu eta anaikorrean, elkarriketarako, topaketarako eta osagarritasunerako eremu eta une egokiak bilatuz. Aita Santuarekin bat eginik, zera diogu: Gure arteko gerrari, ez! (ik. EG 98-101). Kideen arteko hartu-eman anaikorra, denak aintzakotzat hartzea dakarren harremana zaintzen duen elkarreak baliozko lekukotasuna eskaintzen du Elizaren nortasun eta misioa zentzuz betetzen duen giza adiskidetasunerako (ik. LG 1).

4. Espirituaren gidaritzapean

31. Gure elkartetako pastoral aldatzeak kideen bihurtze ebanjelizatzailea eskatzen du eta behar du. Hainbat elementu behar da horretarako eta labur-labur aipatuko ditugu batzuk, Frantzisko Aita Santuaren idazkiak eskaintzen dizkigun argibideak kontuan hartuta: Benetako bihotz-berritze pertsonala; kristau sarbiderako prozesu egokia eta beharrezko laguntasuna, kristau askok jasaten duen nortasun-krisiari aurre egin ahal izateko; Jainkoaren errukiaren lekuko gartsu eta ausart bihurtuko gaituen, berotasun espirituala ahultzea galaraziko duen berrikuntza espiritual sakona; “kanpora begira” jarriko gaituen, indibidualismotik, barne-erosotasunetik, burgesamendu espiritualetik (ik. EG 78) ateraraziko gaituen, bizia eman egin behar dela, *“bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik eta berri onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du”* (Mk 8, 35) sinestaraziko digun bihotz-berritzea; benetako zerbitzari-sena, zerbitzatua izatera ez ezik, zerbitzatzera eta bere bizia ematera etorri zen (ik. Mt 20, 28) Jesusen jarrera geure egiten lagunduko diguna.

32. Munduko bizitzaren berariazko espiritualtasuna (ik. EG 93) gaintzen lagunduko digun bihotz-berritze pertsonal hau ahalbideratzeko, eskaintzen zaigun Jainkoaren dohaina suspertzen duten tresna eta gertaerak ematen zaizkigu: Otoitza eta Hitzaren irakurketa sinestedun eta otoizlaria, sakramentuetan, batez ere Eukaristian, parte hartzea, eliz elkartean bizi eta eliz elkartearen konpainia onartzea, etengabeko heziketa, adiskidetzearen sakramentuak eutsiriko etengabeko bihotz-berritzea, herri jaiera eta erlijiosotasunaren adierazpen anitzak, Elizako artzainek ematen duten zerbitzua, biziera kontsakratuaren, giza bizitzako era guztietako eremuetan beren fedea bizi eta fedearen testigantza ematen dutenen, Jainkoaren maitasuna giza sufrimenduaren iluntasunetara edo gure mugetatik haratago daramatenen... lekukotasuna eta eskaintza.

33. Bihotz-berritze pertsonal hau Elizaren batasunean gauzatzen da. Ez da bakarkako prozesua. Aniztasunetik, elkarrekin egotetik, familia garela aitortzetik, laguntasunetik, senidetasunetik, Jainkoaren herri izateetik sortzen den batasunezko espiritualtasuna da funtsezko osagaia. Herri izatearen zapore espirituala eragin behar dugu (ik. EG 268). Beharbada bizimodu lar indibidualista bizi izan dugu, Elizako kide izatearen, bihotzez eta eraginkortasunez bertako parte izatearen garrantziaz jabetu gabe.

34. Bat egiteko gogo hau elkarturik jardutea galarazten duten mesfidantza edo aurreiritziak gaintzeko, elkar maitatzeko eta estimatzeko baliagarri izango da. Honek, era berean, geure baitatik atera eta kristau elkartearen barruan ez ezik edozein muga gaintuz bestearen bila joatera bultzatzen gaitu, Jaunak bidaltzen gaituela jakitun izanik. Elkartzearen kultura eliz batasunaren alderdi bereizgarria da eta ezinbesteko prestasuna bidalketa eta iragarpenerako, bizigiro guztietan Jainkoaren errukiaren lekukotasuna emateko: *“Bestea ezagutzeko begiak irekitzen zaizkigun bakoitzean, fedea gehiago argitzen zaigu Jainkoa ezagutzeko”* (EG 272).

35. *“Kristoren maitasunak bultzatzen gaitu”* (2 Kor 5, 14). Jasaten ari garen basamortutze espiritualaren aurrean, Jainkoak “gizon eta emakume suil”, hainbeste eta hainbeste egartiri benetako misiolari garrez ur bizia eramateko gauza izateko dei egiten digu (ik. EG 81). Altxor hau, Kristo Jesusen ezagutzarena eta Berarekiko batasunarena buztinezko ontzietan daramagula dioskun San Pauloren esaldia gogorarazten digun adierazpen ederra. Horrela argi geratzen da, *“horrenbesteko indarra Jainkoarengandik datorrela eta ez guregandik”* (2 Kor 4, 7). Ez da gure egintza. Guk, morroi gizagaixo izanik, behar genuena besterik ez dugu egin (ik. Lk 17, 10), eta doan ematen dugu doan hartu duguna (ik. Mt 10, 8).

III. ERRUKIAREN BEHARREAN DAUDEN EREMUAK

36. Errukiaren Berri Ona jadetsita, ez da erraza isilik eta geldirik geratzea gure ondoan oraindik ezagutzen ez duen eta behar duen hainbeste lagun ikusten dugunean. Horrelaxe gogoratzen digu Frantzisko Aita Santuak: *“Zerbaitek era onean kezkatu behar bagaitu eta gure kontzientzia arduratu behar badu, horrek zera izan behar du: gure hainbat senide Jesu Kristorekiko adiskidetasunak dakarren indarririk, argirik eta kontsolamendurik gabe bizitzea, eutsiko dien fede elkarte bat gabe, zentzuzko eta bizitzazko etorkizunik gabe”* (EG 49). Jainkoaren errukiaren esperientziak berezkoa eta ezinbestekoa du iragartzea eta konpartitzea. Begirada arretatsuak hamaika gizabanako eta egoera zehatzetan dauden zoritxar eta sufrimenduak antzematen laguntzen digu. Jainkoak maiteen dituen hauei *“lehentasuna eman nahi diegu, beraien artean nahasi nahi dugu, lagun egin nahi diegu, beraiekin fruitu eman eta jai egin”* (ik. EG 24). Zehaztasunetan sartzeko asmorik gabe, zein eremutan antzematen dugun errukiaren aparteko beharra nabarmendu nahi dugu, hau da, non itxaroten gaituen Jesusek bere egarria asetzeko, bere maitasunaren eramaile izateko, bizi-ukendu bezala, sufrimendua arin dezan, iluntasuna argi dezan eta bakardadea barne har dezan bizi eta itxaropenezko bideak zabalduz.

1. Gizarte bizikidetasuna

37. Jainkoaren errukia batik bat bekatuen barkamenean datzala ikusi dugu. Horregatik, barkamena eta adiskidetzea da *kanpaina-ospitalearen* eginkizun nagusienetakoa. Erruki honek apurtutako bizitzaren berreraikuntza eta iraindu edo mindu dugun Jainkoarekiko eta anai-arrebarekiko adiskidetzea ahalbideratzen du. San Paulok diosku: *“Hau guztia Jainkoarengandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu baikaitu eta adiskidetzeko zerbitzua gure esku utzi du. Bai, Jainkoa da Kristoren bitartez mundua berekin adiskidetu duena, gizon-emakumeei bekatuen kontuak eskatu gabe, eta adiskidetzearen mezu hau gure esku utzi duena. Kristoren mandatari gara, beraz, eta Jainkoak berak gure bitartez erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: egitzazue bakeak Jainkoarekin”* (2 Kor 5, 18-20). Une honetan zehaztasunez aztertuko ez dugun paragrafo luze eta mamitsua da. Adiskidetzea eliz ministerio nagusia dela aipatzea baizik ez dugu nahi.

38. Jainkoarengana bihurtzeko bideari ekitea, errua aitortzea, funtsezkoa da norbere sendakuntzari ekiteko: *“Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra”* (Lk 15, 18). Zoritxarrez, gero eta kontzientzia gutxiago dugu bekatuaz, egundoko zailtasuna dugu gure erruak aitortzeko. Eta horrek, sarritan, bihurtze eta suspertzerako bide honi ekitea galarazten digu. Ezinbestekoa dugu Jainkoaren errukiaren grazia hori, laguntza hori eskatzea, geure barrura sartu, eta gure egoera negargarriaz jabetuta, bere ahalmenaren adierazpen bikaina den Jainkoaren errukira irekitzeko: *“Ene Jainkoa, zure ahalmena barkamen eta errukiaren bidez erakusten duzuna”* (U.Z.eko XXVI. igandeko bilketa-otoitza).

39. Besarkatzeko eta duintasuna itzultzeko gizon egin den Jainkoaren aurrean sentitzen dugun barkamenaren eta adiskidetzearen esperientzia hau bereziki beharrezkoa da gure azken urteotako historian, gure hainbeste anai eta arrebaren odola bidegabe isuria izan denean eta beste batzuek beren gorputzean eta oroimenean, beren historian eta familiakoan, sufrimendua eragin izan dien eta eragiten dien arrasto fisiko, psikiko, sozial eta espiritualak daramatzatenean. Maitasun handiz entzun behar ditugu biktimak eta beren familiak, Jainkoaren eta gure kontsolamendua, harrera, konpainia eta laguntza eskaini behar diegu eta baita gure aitortza adieraziko duen oroimen bizia ere.

40. Aitak beti itxaroten duela gogorarazi behar diegu mina eta sufrimendua eragiten dutenei; itzulerako bidea egiteko, beren bihotza ireki eta, Dabiden antzera, *“neure hobena, neure bekatua”* (Sal 50, 5) aitortzeko gonbitea egiten zaie eta, hainbesteko bidegabekeriaz biktimengan ez ezik, bizitzan bertan eta

beren familietan ere suntsitutakoa berregiten hastekoa. Ezekiel profetak dioenez, *“Jainkoak ez du atsegin gaiztoa hiltzea, jokabidez aldatu eta bizi dadila da bere nahia”* (Ez 18, 23). Bide labain honetan, nahi-taezkoa da laguntasuna eta pedagogia, eragindako kaltea aitor dezagun eta, ahal den neurrian, konpondu, eta indarkeriak eragin dituen arrasto fisiko, psikiko, espiritual eta sozialen sendakuntzari ekin diezaiogun.

41. Egiteko adiskidetzaila elementu guztiz garrantzitsua da gaurko gizartean. Honen haritik, hauxe gogoratu behar da: *“Elizak ez du kontu zehatz guztietarako erantzunik. Baina gizarteko indar ezberdinekin batera giza duintasunari eta guztien ongiari hobeki erantzungo dioten proposamenak bultzatzen ditu”* (EG 241). Errotutako bizikidetzak baketsua lortzeko zailtasunak direla-eta, Aita Santuak baliagarri izan dakizkigukeen oinarri batzuk gogoratzen dizkigu: Elkarrizketa soziala, bat egitea, entzutea, baterako bilatzea, eroapena, egiaren eta zuzentasunaren errespetua. Jakin badakigu behin betiko soluzioak ez direla epe laburrera lortzen, fruitu emango duten eta aurrera egiten lagunduko diguten ekintza handi edo txikien bitartez baizik (ik. EG 223); arazoak beren konplexutasunean hartu behar ditugu, gauzen egiari bide eginez, borondateak batuz, egoeretan argi eginez eta aurrera egiteko bideak argizatuz (ik. EG 226-230). Era berean, garrantzitsua da arazoak ideologia jakin baten pean ez jartzea eta ez idealizatzea eta errealtateak alderdi anitz dituela gogoratzea eta, ondorioz, zailtasunen konponketa beti ez dela ez erreza ezta berehalakoa ere kontuan hartzea (ik. EG 232-233). Ebanjelioak ematen dizkigun jarrerren, irizpideen eta askatasunaren arabera jardun behar dugu beti.

42. Ezagutu izan ditugu eta ezagutzen dihardugu bake eta adiskidetzaren lekukotasun benetan heroiko batzuk. Are gehiago, norabide honetan emandako urrats asko eta asko -beharbada gehienak- ez dira agertzen komunikabideetan eta jendeak ez ditu ezagutu ere egiten. Adiskidetzea, izan ere, Ebanjelioko mostaza-alearen antzekoa da, hazien artean txikiena izanik ere, asko hazten da eta, azkenean, askori ematen dio babes bere itzalpean.

43. Ulergarria da oraindik indarkeriazko historiaren zauriak barren-barrenean sufritzen dituztenek barkamen eta adiskidetzarako deia onartzeko zailtasunak izatea, beren oinazea ahaztu edo gertaturakoaren oroimena galdu egiten dela pentsa dezaketelako. Baina elkarte benetan anaikor eta adiskidetuak eta elkar barkatzen duten, egindako kaltea konpontzen saiatzen diren eta, iraina gainditu ondoren, bidea berriz elkarrekin egin nahi duten pertsonen testigantza ikusten badute, erakartzen eta itxaropenez betetzen duen argiaren aurrean aurkituko dira beraiek ere (ik. EG 100).

44. Jakina, barkamena ez da ezarri edo exijitu egin daitekeen zerbait. Dohaina, grazia, da beti. Azken batean, oinarrian, geure burua sendatzen ari den botika bera, hau da, Kristok eskaintzen digun maitasuna, barkamena eta errukia besteei eskaintzea da. Bere etsaiak ginenean berak maite izan gaituela lehenengo eta hirurogeita hamar bider zazpi aldiz barkatu gaituela konturatzean datza. Berak beti barkatzen du, egia bada ere geure esku dagoela barkamen hori onartzea eta horren onura ateratzea edo barkamenari gure barrua ixtea, hori baztertzea eta, honela, bihozminez eta atsekabeturik geratzea. San Paulok primeran azaltzen du: *“Ez zaitzala gaitzak mendera, baizik eta menderatu gaitza ongiaz”* (Erm 12, 21). Barkamen hau, Jainkoaren behetako dohain, baliabide bikain eta eraginkorra da Jainkoaren errukiaren Berri Ona iragartzeko.

2. Familia

45. Gaur egun, bereziko garrantzia du Jainkoaren errukia senar-emazteengana eta familietara isurtzeak. Ardura hau nabarmena da Frantzisko Aita Santuarengana eta horren adierazle bi sinodo antolatu dituela familiaren erronka, bokazio eta misioaren ingurukoak aztertzeko. Hain zuzen ere, familia da gizartean baloriorik onena duen erakundea. Gizatasunerako, sozializaziorako, elizatasunerako eta santutasunerako egiazko eskola da. Bertan sortu gara, bertan aitortzen eta maitatzen gaituzte garenagatik eta bertan ikasten

dugu maitatzen eta geure burua ematen. Bertan bizi dugu lehen aldiz Jainkoaren errukia eta bertan bizitzen ikasten dugu. Miresgarria da bere bizimoduarekin gizarte benetan gizatiar eta anaikorra eratzen duen hainbeste senar-emazteren lekukotasuna. Ezkontza eta familia gizadiaren kulturaren jatorrizko ondasunak dira, zaindu, suspertu eta defendatu egin behar den ondarea. Nolanahi ere, Frantzisko Aita Santuak dioenez, *“Familia krisi kultural sakona bizitzen ari da”* (EG 66).

46. Indibidualismo postmodernoa, ezkontzaren eta familiaren ikuspuntu ideologizatu desberdinak, maitasunaren emoziozko ikuspuntua, afektibitate-heldutasunik eza, lokarrien hauskortasuna, zailtasun ekonomiko eta sozialak, etxebizitza eta lana jadestea, besteak beste, ezkontza desitxuratu, ezkontzaren egia eta ontasunaren ikuskera lausotu eta familia lokarriak ahuldu dituzten eragileak dira. Ezkontzen ospakizunek nabarmen behera egin dutela eta ezkondu eta bost urtetara gutxi gora-behera erdiak hautsi egiten direla erakusten duten datu soziologikoetan ikusten da hori. Eta honi bereziki emakumezkoen eta haurren aurkako tratatu txar eta indarkeriazko kasu anitzak, familia ugariaren pobrezia, giza bizi ororen ontasun eta duintasun besterenezina eta jaiotzen diren haurren bizia zaindu eta defendatu beharra –egundoko dohain bezala ematen zaizkigu-eta- berresten duen biziaren kulturaren gainbehera gehitu behar zaizkio (ik. EG 212-214).

47. Ezkontza Jainkoaren eta gizadiaren arteko Itunaren, Kristoren eta bere Elizaren arteko Ezkontza-itunaren adierazpena da eta gizatasunean islatutako Jainkoaren maitasunaren ikonoa. Horregatik errealitate honek, era askotako zailtasun eta ulertezintasunen proba jasandakoak, bereziki behar du Jainkoaren errukiaren laguntza. Erruki hau egia bihurtzeko, galdera batzuk egin beharko genizkioke geure buruari: Nola hezi egiazko maitasunean eta hainbat familiatan ager daitezkeen era askotako dramak prebenitu? Nola erakutsi Kristorengan gure gizarte testuinguruan ezkontideen maitasun leiala, eskusiboa, egonkorra, bereizezina, bizia onartzeko prest dagoena bizitzearen edertasuna eta aukera? Nola agertzera eman eta eragingarri bihurtu zoritxar hauetan eta beren ondorioetan Jainkoaren errukia, aurkeztu berri ditugun gizaki eta egoera horiekin Ituna berrezarri nahi duen Jainkoaren errukia? Nola lagundu beren haurdunaldia larritasunez eta etsipenez bizi duten emakumei? Nola agertu giza biziari dagokion dohaina eta nola lagundu bizi hori zailtasun guztien gainetik onartzen?

48. Abortuari buruz indarrean dagoen legeria erreformatzeko ezezkoak babesgabetasun juridikoan utzi ditu milaka eta milaka bizi amaren sabelean. Gogoratu beharra dago, garapen ekonomikoaren aldeko interesaren gainetik, funtsezko balio moralak daudela, hala nola, giza biziaren babesa bere sorkuntzatik heriotza naturaleraino. Egia da gure elizbarrutietako, parroketako eta elkarteetako nahiz eliz eta herri erakundeetako pertsona askok makina bat ekimen garatzen duela senar-emazteei eta familiei zailtasunez, arriskuz, pobreziaz edo porrotez jantzitako inguruabar anitzetan laguntzeko. Baina, zein konpromiso har dezakegu bakarka eta elkarteetan, zein erantzun eta proposamen operatibo berri garatu, berritu edo bultzatzen jarraitu behar dugu?

49. Familiak Elizarentzat eta gizartearentzat duen garrantzi handitik ezin bananduzkoa da dagokion hezkuntza-erantzukizuna. Familiari dagokio berariazko bokazioagatik beren seme eta alaben hezkuntza-egitekoa. Ministerio liluragarria da, kontuz hartzekoa, eta aitaren eta amaren ardurapean uzten da. Ez dago haur eta gazteak murgilduta dauden errealitatean txertatzea, bere ulergarritasunaren giltzak erakustea, beren bizitzaren zentzuaz jabetzen laguntzea baino egiteko ederragorik. Gurasoak Jainkoaren maitasuna den maitasun handiagoaren lekuko dira. Beraien gain dago haur eta gazteak fedean, maitasuna eta errukia den, gure haragiko egin den, gure bizitza zentzuz betetzen duen, betiereko zerumugara irekitzen gaituen eta gure osotasuna jadesteko bidea erakusten digun Jainkoaren ezagutzan hezteko erantzukizuna. Jainkoarengan antzeman dezakegu sortutakoaren ontasuna, errealitatearen ikuspuntu positiboan, bihotz-zabaltasun eta prestasunean, errespetu eta eskaintzarako gaitasunean, ahalegin eta sakrifizioan, elkartasun eta errukian, barkamen eta bakean hazi egin gaitzke.

50. Honen haritik, aitek eta amek laguntasuna behar dute, zailtasunak azaltzean, hezkuntza-egitekoan amore emateko tentaziorik izan ez dezaten. Hau dela-eta, *“beharrezkoa da era kritikoan pentsatzen erakutsiko digun heziera, balioetan heldutasuna iristeko bidea eskuratuko diguna”* (EG 64), ezinbestekoa dela dio Frantzisko Aita Santuak: Gizakiaren alderdi guztiei helduko dien hezkuntza. Egiteko honen barruan legoke, gainera, kristau sarbidea bizitza osoari zentzua ematen dion giltza bezala. Laguntasuna eta babesa eskatzen duen hainbat erronka esanguratsu dago: gurasoen lekukotasuna, askatasunaren eta aginpidearen arteko elkarrenergina maitasunean, erreferentzia-ereduen beharra, bokazio-planteamendua, familia eta gizarte eremuan gerta daitezkeen afektibitate-gabeziei edo edozein eratakoei erantzun beharra. Elizbarrutietan, makina bat gizabanako, elkarte erlijioso, parrokia, elkarte eta erakundek buru-belarri dihardu familiei egiteko honetan laguntzen eta gure babesa eta eskerrona adierazi nahi diegu horiei guztiei.

51. Halaber, familiek beren uste sendoen arabera seme-alabentzat nahi duten hezkuntza-mota erabakitzeke eskubidearen eta irakaskuntza estatalean nahiz ekimen sozialekoan edo kontzertatuan aurkezten zaien hezkuntza-eskaintzaren arteko lotura eta koherentziaz galdetu beharra dugu, biak ala biak publikoak direlako eta familiek hezkuntza jadesteko duten eskubideari erantzuten diotelako. Hezkuntza-egitekoan, Gurasoen Elkartean, eskola-kontseiluetan parte hartzerakoan, irakasle katolikoaren etengabeko prestakuntzan, hezkuntza-eremu desberdinetako elkartean esku hartzerakoan zer nolako inplikazioa dugun ere aztertu beharko genuke.

3. Behartsu eta baztertuak

52. Jainkoaren errukiaren hartzaile nagusiak behartsu eta baztertuak dira. Gaur eta beti behartsuak dira Ebanjelioaren jasotzaile nagusiak, eta beraiei doan zuzentzen zaien ebanjelizazioa Jesus ekartzera etorri zen Erreinuaren agerpenaren zeinua da (ik. EG 48). Jainkoaren errukia, Kristorengan agertutakoa, giza pobrezia, behartasun eta gaitz orotara jaisten da. Gizaki guztien osoko garapena sustatzeko deialdia egin zaigu. Ebanjelioa ez da esparru pribaturako; hain zuzen ere, mundua Jainkoaren Erreinuaren eskakizunen arabera aldatzeko gauza den gizarte bokazio nabaria du. Gogora ditzagun labur-labur, Frantzisko Aita Santuak adierazitako oinarri batzuk: Ez bazterketaren ekonomiari (ik. EG 53); ez diruaren idolatria berriari (ik. EG 55); ez zerbitzatu orde agindu egiten duen diruari (ik. EG 57); ez indarkeria dakarren zuzentasunik ezari (ik. EG 59). Enuntziatu guzti hauek bat datoz salaketa egiterakoan: antolakuntza ekonomiko finantzario eta sozialaren muina ez dela gizakia, dirua, ekoizpen-bideak, boterea, pilatzea eta horrelako beste elementu batzuk baizik. Gero helduko diegu auzi hauei, beraiekin estu lotutako beste atal batean.

53. Testuinguru honetan, behartsuen aldeko lehentasunezko aukera Ebanjelioaren erraietatik bertatik sortzen den eta Jainkoak makalenei, txirotuenei eta babesgabeenei dien errukia agertzera ematen duen mezutzat har dezakegu. Bera, aberats izanik, behartsu egin zen gu guztiok aberasteko (ik. 2 Kor 8, 9). Hainbat ondorio dakar honek Elizaren misiorako. Munduko lurralde zabaletan erabat hedatuta eta sustraituta dauden gosete eta pobreziei gainjarririk jasaten ari garen krisi ekonomikoaz geroztik, nahitaezkoa da bidegabekerien eta pobrezien sustraian dauden bekatuzko ideologia eta egiturak ezagutzera ematea. 2011. urteko pastoral idazkian baieztatu genuenez, ezinbestekoa da ekonomia gizabanako bakoitzaren eta gizabanako guztien esanetara jartzea.

54. Zehaztasunez hitz egiten du Frantzisko Aita Santuak: Eliza behartsua nahi dut behartsuentzat (ik. EG 198). Honek berekin dakar pentsamolde- eta ohitura-aldaketa; pentsaera eta ohitura berriak bihotzetik sortuko dira, pobrezia bera bizi izatetik eta benetako aberastasuna aurkitzetik. Beraz, benetako bihotz-berritzea eskatzen du. Errukizko obrak deitu izan direnek (ik. EKaren Kristau-ikasbidea 2447), gorputzarenak eta espiritualak deitutakoek, sarritan elkarri lotuta doazen lau pobrezia-mota gogorarazten dizkigute: Pobrezia fisiko edo ekonomikoa, larriena eta errazen ikus daitekeena; pobrezia kulturala, gizarte bizitzatik kanporatu

egiten duena heziketarako aukerak ukatzean; erlaziozko pobrezia, gizarte ingurutik bakartzea dakarrena; pobrezia espirituala, gure gizartean, maiz, barneko hustasunean, etsipenean edo abandonuan zehazten dena. Errukizko obrak giza lege hutsetik haratago kokatzen direla, zuzentasun zorrotza baino gehiago direla eta kristauarentzat exijentzia direla nabarmendu behar da. Horregatik, egintza horiek ez burutzea ez-egitezko bekatua da, agindu batekin bukatzen den samariar onaren parabolak (Lk 10, 25-37) inongo zalantzarik gabe erakusten duenez: “Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste”.

55. Pobreziak, era batekoa nahiz bestekoa izan, Jainkoaren errukiaren isla den gure begirada errukitsua eskatzen du. Are gehiago, kristauari behartsuenganako hurkotasun egiazko eta adeitsua eskatzen dio, haiei egoki lagundu ahal izateko askapenerako bidean (ik. EG 199). Jesusek behartsuekiko elkartasuna izateaz gainera, beraiekin bat egin zuen (ik. Mt 25) eta Berri Onaren hartzaile nagusitzat hartu zituen (ik. Lk 4). Aberats izanik, behartsu egin zen gu guztiok bere pobreziaz aberasteko (ik. 2 Kor 8, 9). Hala eta guztiz ere, behartsuak ez dira Elizaren jardueraren hartzaile bakarrik; Aita Santuak gogoratzen digunez, gure ebanjelizazioaren eragile ere badira. Horregatik, Kristo antzeman behar dugu beraiengan, gure ahotsa eman behar diegu beren auzietan, baina, aldi berean, beren adiskide izan behar dugu, entzun egin behar ditugu, ulertu, eta Jainkoak beren bitartez jakitera eman nahi digun jakituria misteriozkoa jaso (ik. EG 198). Hortik ondorioztatzen da zor diegun eta askotan oharkabe pasatzen zaigun edo gerorako uzten dugun aparteko arreta espirituala. Espiritual arloan arreta ez jartzea jasan dezaketen diskriminaziorik eskasena da Frantziskoren ustez, beraietako gehienek aparteko fede-irekitasuna dutelako; Jainkoa behar dute eta behin eta berriro eskaini behar dizkiegu Jainkoaren adiskidetasuna, bedeinkapena, Hitzza, Sakramentuen ospakizuna eta fedean hazteko eta heldutasuna jadesteko bidea proposatu (ik. EG 200).

56. Pobreziazko egoerei egoki erantzungo badiegu, nahitaezkoa izango da bihotz-berritze pertsonala, bihotzaren aldaketa, bizimodu neurritsu, anaikor eta solidarioa eramatea. Ondasunen erabilerari dagokionez, soiltasuna eta elkartasuna nagusituko dira. Ez gara garenaren eta dugunaren jabeak, administratzaileak baizik. Aita Santuaren aholku-hitzean jasotzen den San Joan Krisostomoren aipuak dakarkigu gogora: *“Norbere ondasunak behartsuekin ez partekatzea, bititza kentzea eta lapurtzea da. Ditugun ondasunak ez dira gureak, haienak baizik”* (ik. EG 57). Behartsuekiko harreman berriak ondasunekiko erlazio berria eta horien erabilera ebanjelikoa eskatzen du nahitaez. Gure elkarteetako eta gure elizbarrutietako sektore zabalak ez ote daude kontsumo-gizartearen parametroetara moldatuta? Gure bizimoduaren arabera, gure jarduera ebanjelizatzaileari sinesgarritasuna ematen dion bestelako aukera ote gara benetan?

57. Errukia, eraginkorra da, lagun hurkoaren sufrimenduaren ardura hartzera, bere lekuan jartzera, entzutera, defendatzera, gure ondasunak erdibanatzera, bere eskubideak eta bere duintasuna berreskuratzen laguntzera garamatza. Berekin du elkarte konpromisoa ere, eliz nahiz gizarte mailan, politiko eta ekonomikoan, desberdintasuna eta bidegabekeria eragiten dituzten bekatuzko egituren eraldaketan. Frantzisko Aita Santua behartsuen gizarteratzearen eta elizaratzearen alde agertzen da. Gure inguruan ere, erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan, arreta jarri behar diegun oinazezko errealitateak antzematen ditugu: Langabezia, batez ere gazteen eta iraupen luzeko langabetuen artean, makina bat familiak jasaten dituen zailtasun ekonomikoak, familia eta lana uztartzeko zailtasunak, etorkinen etorrera eta hauek gizartean txertatu beharra, familiak berriz biltzea, etxebizitzaren arazoa eta desjabetzeak, nagusi eta gaixoen aldeko arreta, minusbaliatuei eskaini beharreko arreta, toxiko-mendekotasunetan, jokoan edo era askotako mafia-sareetan erortzen diren pertsonen aldeko arreta eta errehabilitazioa.

58. Azkenaldian, gizarte laguntzen (esate baterako, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta Euskal Autonomia Erkidegoan edo Gizarte Integrazioarako Errenta Nafarroan) ezarpenaren inguruko eztabaida biztu da. Zalantzakotzat jo izan da bere balioa eta murrizketak proposatu, ezarpen praktikoan gehiegikeriak egon zitez-

keelakoan. Caritas erakundeaz gainera, elizako beste hainbat talde eta erakunde atera da laguntza hori behar dutenen alde, gizarteak gehien erdeinatzen ditueni eta babes gutxien dutenei laguntza ematen dietela ohartuta eta gizarte zuzen eta anaikorragoaren alde eginez. Elizaren doktrina sozialaren aplikazio zuzena da berau. Gehiegikeriarik izan bada, beharrezkoa da antzematea, zuzentzea eta prebenitzea, esaera zaharra gogora ekarriz: *Abusum non tollit usum*, hau da, batzuen gehiegikeriak ezin du guztientzako bidezko baliagarritasuna galarazi.

59. Pobrezia zaharrei beste berri batzuk gehitzen zaizkie; zeintzuk diren jakin behar dugu eta aurre egin. Ez dezagun ahaztu pobreziek aurpegiak dituztela. Harrera, entzutea eta laguntasuna behar dituzten gizon eta emakumeak dira. Honen haritik, pobreziaren aurkako borrokan, bere arrazoi eta egiturei eta, batez ere, jasaten duten pertsonen dagokienez, gure konpromiso pertsonal eta komunitarioaren ebaluazioa egin behar dugu. Frantzisko Aita Santuak geografia-eremu desberdinetan sortzen diren morrontza berriei eskaini die aurten bakearen aldeko munduko jardunaldiko mezua. Gure gizartean ez ezik, goseteak, gerrak, morrontzak eta bidegabekeriak dauden munduko hainbat lekutan hedatuta dauden pobreziako egoerak eta hauen ondorioak ezabatzeko biziki ahalegintzen diren makina bat gizabanakoren, elkarteren, kongregazio erlijiosoren, eliz erakundetako GKEetako eta erakunde publiko eta sozialetako boluntarioen eskaintza eta konpromisoa eta horrekin ematen duten testigantza eskertu behar dugu.

4. Sufrimendua eta gaixotasuna

60. Sufrimendua, mina baino errealitate sakon eta pertsonalagoa da, izatearen barren-barrenean ukitzen duen errealitate konplexuagoa. Mina beti da pertsonala, baina sufrimendua askoz barruko eta sakonagoa da eta hortxe sentitzen da norbere bizitzaren mugatasuna eta norbere izatearen hauskortasuna. Gaixotasunak beroni aurre egiteko, berau bizitan txertatzeko erantzukizuna dakarkigu. Minak eta sufrimenduak premiakoa dute zentzua bilatzea, hori gainditu beharra; minak eta sufrimenduak ezinbestekoa dute errukia; leku antropologiko nagusia da eta entzutea, laguntasuna, errukia eta itxaropena eskatzen ditu.

61. Jainkoa ez da sufrimenduaren egilea, ezta heriotzarena ere, konponbidea jartzen diona baizik, beti dagoelako sufritzen dutenen ondoan, babestu eta onartu egiten dituelako. Kristok, bere nekaldi eta gurutzarekin, giza sufrimendu guztiak barne hartzen ditu bere sufrimenduan. Minaren gauean, norbere muga eta behartasunaren hautematean, Jainkoaren errukiak zauritutako eta gaixotasunak suntsitutako seme eta alaba guztiak hartzen ditu. Honela azaltzen da gizakiaren transzendentzia eta bere bizitzako gorabehera guztiak, ilun eta mingarrienak barne, zentzuz betetzen ditu. Jainkoaren maitasuna heriotza baino sendoagoa dela adierazten digun biziaren Ebanjelioak itxaropenera irekitzen gaitu. Samariar onaren parabola da gaixotasunaz jotako gizakiarenganako arretaren paradigma (Lk 10, 25-37). Sufrimenduaren, gaixotasunaren eta zahartzaroaren munduan, ezinbestekoa da testigantza hau ematea: Berpiztuak ematen digun biziak sufrimendua eta heriotza garai ditzakeela.

62. Kristauoi biziaren eta harreraren kultura sustatzea, oinazetan dagoenari samariar onaren errai berekin zerbitzatzea dagokigu: *“Sufritzen ari den beste hori onartzea bere sufrimendua nork bere egitea da nolabait, delako sufrimendu hori neure bihurtuz. Baina, hain zuzen ere, orain konpartitutako sufrimendu bihurtu delako, bertan beste baten presentzia gertatzen delarik, sufrimendu hori maitasunaren argiak zulatzen du. ‘Consolatio’, kontsolazio, hitz latindarrak ederto adierazten du, bakardadean «norbaitekin izan» delakoa iradokiz eta, ondorioz, bakardade izateari utziz”* (Benedicto XVI, Spe Salvi, 38).

63. Honako hau gonbitea da, azken batean, gaixoei, kasu askotan bakardadea jasaten duten eta abandonu eta ahaztean zokoratzen dituen narriadura psikologikoa izaten duten edadeko pertsonen eskaintzen diegun arreta azter dezagun. Azter dezagun zer nolako kalitatea duen gaixoei, beren bizilekuetan nahiz osasun-

etxeetan, eskaintzen diegun arreta, beren senide eta zaintzaileei eman diezaiekegun laguntasuna, kristau elkartearen duten presentzia, beraientzako arreta espiritualala eta, behar den heinean, familia eta gizarte bizitzan ahalik eta bizkorren eta egokien txertatzeari begira emaniko laguntza.

64. Gizakien heriotzaren inguruko uneak ere errukirako eta misiorako leku nabarmenak dira: Hilzorian dagoenari bere bizitzako azken uneetan lagundu, familiari une horietan lagundu eta, ondoren, dolua egiten lagundu. Hileta-ospakizuna aukerako unea da berpizkunde eta biziaren Ebanjeliora, Jainkoak ematen digun kontsolamendu eta itxaropenera irekitzeko, hildakoa, bere senideak eta bere adiskideak Aitaren beso errukitsuetan uzteko eta santuen batasuna eta kristau elkartearen laguntasuna esperimendatzeko.

5. Gizarteko arlo batzuk

65. Behartsuen gizarteratzeari eta pobrezia eta bidegabekeria eragiten dituzten arrazoiei dagokienez, Ebanjelioaren poza, Jainkoaren Erreinuaren haziak hartzeko gauza diren heinean, gizarteratze hori ahalbideratzen edo galarazten duten eremu batzuk aipatuko ditugu. Kultura erronka dei dezakeguna da lehenengoa. Zein da kulturaren eta Ebanjelioaren arteko lotura gaur egungo egoeran? Frantzisko Aita Santuaren esanetan, *“gailentzen den kulturaren, kanpokoak betetzen du lehenengo lekua, berehalakoak, ikusten denak, azkarak, azalekoak, behin-behinekoak. Egiazkoak itxurakoari egiten dio tokia. Herrialde askotan, erro kulturalak hondatzea ekarri du globalizazioak, beste kultura batzuen joerak bereganatuz, hauek ekonomikoki garatuak baina etikoki ahulduak diren kulturak izanik ere”* (EG 62). Zer egin Ebanjelioaren ekarpen aberatsa eta kristau esperientzia egiazko kulturaren eta giza duintasunaren sustapenaren eragingarri izan daitezten? Nola bultzatu Ebanjelioaren txertatzea kulturaren, kulturaren munduaren ebanjelizaziorako bide berriak bilatuz? Honi dagokionez, ikastetxe eta unibertsitateek, kultura eta artearen arloan ari direnek eta beren lan- eta hausnarketa-esparruetan kristau pentsamendua garatzen dutenek laguntza bereziki baliotsua eman dezakete.

66. Lan munduaren ingurukoa da bigarren eremua. Elikadura, etxebizitza, hezkuntza eta osasun arloko funtsezko beharrek batera, lana ere hil ala bizikoa da gizakiaren garpenerako, familia bizitzarako eta gizarteratzerako. Frantzisko Aita Santuak dioenez, *“lan aske, sortzaile, parte-hartzaile eta solidarioan adierazten eta areagotzen baitu gizakiak bere bizitzako duintasuna. Lansari zuzenak, denon erabilerarako dauden beste ondasunak eskuragarri egiten ditu”* (EG 192). Lan duina eta ondo saritutakoa jadestea premia larri bihurtu da gure inguruko familia askorentzat, eta, bereziki, lehen lana aurkitzen ez duten gazteentzat eta iraupen luzeko langabetuentzat. Funtsezko ondasun antropologiko izanik, lanari dagokion duintasuna gogoratu beharra dago eta, honekin batera, ez da ahaztekoa, familia eta lan bizitza egoki uztartzeko bideak bilatzea ezinbestekoa dela, langileei duintasuna dagokiela eta errespetua zor zaiela, beren bidezko esku-bideak defendatu egin behar direla, ordainsari zuzena jaso behar dutela eta errenta zuzen banatu behar dela.

67. Lanaren funtsezko alderdi honekin batera, enpresa-ekimena sustatzea komeni da, eta baita autoenplegurako eta lanpostuak sortzeko bideak ere, baina beste ikuspuntu batetik: irabazizko helburu hutsak gainditu eta behar diren ondasunak sortzeko eta banatzeko ezinbesteko erantzukizunez jokatzuz. Gogoratu beharra dago enpresaren ezaugarri nagusienetakoa ondasun eta zerbitzu baliagarriak sortuz eta banatuz gizartearen ongizatearen alde egitea dela; gainera, zehaztapen eta irizpide ekonomikoen arabera kudeatu behar bada ere, inoiz ez dira alde batera utziko gizabanakoaren, familiaren eta gizartearen garapen zehatza ahalbideratzen duten egiazko balioak. Honen inguruan, zera dio Frantzisko Aita Santuak: *“Enpresariaren bokazioa eginkizun jatorra da, bizitzaren zentzu zabalago batek interpelatu dezan uzten badu; horrek uzten dio, guztien ongiaren zerbitzuan egoten, mundu honetako ondasunak denontzat ugari eta eskuragarri egiten ahaleginduz”* (EG 203). Kristau esperientziaren eraginez, Elizaren doktrina sozialean inspiratutako

enpresak sortu izan dira, hala nola, mugimendu kooperatibista, gizarte ekimeneko egitasmoak eta batasunerako ekonomiari lotutakoak. Horregatik, sustatu eta lagundu egin behar dira gizakiaren duintasun besterenezinarekin bat datozen antropologian eta etikan inspiratutako Elizaren doktrina soziala praktikara eramateko gauza diren gizarte eragileak, enpresariak eta langileak.

68. Hirugarren eremua, ekonomia eta finantzen mundua da. Gai honen inguruan jarduten zuen 2011ko pastoral idazkira jotzea da egokiena: Han lantzen diren gaiak eta ematen diren argibideak gaurkotasunez beteta daude. Honi dagokionez, berriz gogoratu nahiko genuke gizakiaren duintasunaren nagusitasuna eta politika ekonomikoa egituratu beharko lukeen guztion ongizatearen aldeko zerbitzua (ik EG 203). Gure ekonomiaren eta finantza-sistemaren oinarriari buruz berriz hausnartu beharra dago.

69. Kristauek erantzukizun politikoa eta sindikala garatzen den esparruetan duten presentziari lotutakoa da laugarren eremua. Politika, bokazio ederra da berez, karitatea egiteko erarik ederrenetakoa (ik. EG 205). Ustelkeriazko kasu deitoragarriak salatzeaz batera, giza duintasunaren eta guztion ongiaren, zintzotasunaren, ahaleginaren eta elkarrizketan jarduteko eta akordioetara heltzeko gaitasunaren printzipioetan oinarritutako zerbitzuzko bokaziotik politikan dihardutenen zerbitzua eskertzen dugu. Ebanjelioak argi egin eta zentzuz bete ditzake zerbitzatu behar diren gizarte gaiak: *“Ziur nago haraindikotasunari zabalik biziz gero pentsaera politiko eta ekonomiko berri bat eratuko litzakeela, ekonomiaren eta gizarteko guztien ongiaren arteko erabateko dikotomia gainditzen lagunduko lukeena”* (EG 205). Eskerrak ematen dizkiegu Ebanjelioa eta Elizaren doktrina soziala sorburu duen ikuspuntua emanez talde politiko eta sindikal desberdinetan partaidetza izan duten laikoei. Aldi berean, galdera egin beharko genuke: eskaintzen ote diegu behar duten prestakuntza gizarte eragileei?, laguntzen ote diegu jarduera politiko eta sindikalean konprometitutako laiko hauei? Gaur egungo inguruabarretan, kristau presentzia honek Erreinuaren balioak gizarte gaitan agertzeraz emateko benetako gaitasunik duen ala lan hori txertatzen den alderdi edo taldeetan indarrean dauden ideologiek neutralizatzen duten ere galdetu beharko genuke. Eta kontu labainagoa: Zein irizpide kontuan hartu behar da delako alderdi edo talde politikoek Elizaren doktrina sozialean adierazitako Jainkoaren Erreinuaren balioak gizartean agertzeraz eman nahi dituztenen konfiantza izan dezaten?

70. Gizarte komunikabideei buruzkoa da bosgarren eremua. Ebanjelioari, berez, iragarpen eta komunikazioaren alderdia dagokio. Komunikabideek eragin erabakigarria dute gizartean; egiaren zerbitzari izan -horrek izan behar baitu beraien bokazio nagusia- eta informatu egin behar dute, zalantzarik gabe, baina, aldi berean, iritzi publikoa sortzen lagun dezakete, ohitura sozial eta kulturaletan, giza hartu-emanen garapenean eragin eta, azken batean, auzi sozial, ekonomiko eta politikoetan esku hartu. Ebanjelioaren mezua hamaika aldiz agertzen da baldintzatuta, eta kasu batzuetan, aldatuta edo itxuragabetuta, moztuta edo, besterik gabe, isilduta (ik. EG 34). Horregatik, beste galdera hau ere egin beharko genioke geure buruari: Nola azaltzen gara kristauok gizarte komunikabideetan? Nola aprobetxatzen ditugu gizarte komunikaziorako teknologia eta sare berriek ematen dizkiguten aukerak? Nola garatzen dute beren misioa kristau erakundeen esku dauden komunikabideek? Nola iragarri misiolari senez ebanjelioaren mezua eta bere ondorio sozialak komunikabideen bitartez? Landu beharreko gaiak dira, hausnarketa sakona eskatzen dutenak, bide eraginkor batzuk eskaini ahal izateko.

IV. LEKUKO ETA MEZULARI

71. Jaunak funtsezko betekizuna ematen digu –guztioi dagokiguna-, bataiatuz eta irakatsiz denak bere ikasle egiteko mandatuaren bidez (ik. Mt 28, 19-20). Hain zuzen ere, kristau sarbidea pastoral jarduera nagusia da Elizaren misioan. Ezinbestekoa da lehen iragarpena egitea, baita familietan eta kristau elkarteetan ere. Elizak ezin du ebanjelizatzaile izan bere burua ebanjelizatzen ez badu. Ez dugu ezer jakintzat eman behar. Nabaria da ez dela batere erraza fedea Elizan, kristau familietan eta elkarteetan transmititzea. Behar-beharrezkoa da Jainkoaren doako maitasunaren lehen iragarpena, horren lekuko diren pertsonen ahotik entzunda. Iragarpen hori apaltasunez nork bere eginik, Jainkoaren ekintzara irekita, fedearen garra biztea dakar (Erm 10, 17). Frantzisko Aita Santuak bere garrantzi erabakigarria azpimarratzen du: *“Konturatu gara, katekesian ezinbesteko eginkizuna duela lehenengo iragarpen edo «kerygma» izenekoak, horrek egon behar baitu egintza ebanjelizatzailearen eta eliz berrikuntza ororen erdi-erdian”* (EG 164).

72. Lehen iragarpen honen ostean etorriko da sakontzea eta zehaztea bizitzako lehen urteetan garatzen den kristau sarbidearen testuinguruko katekesiaren bidez edo, beranduago, urruntze-aldiaren ostean berriz hurbiltzen diren edo, lehen aldiz Jainkoaren doako maitasunaren harridura bizi duten gazte eta helduek egiten dituzten prozesuen bidez: *“Kristau-heziketa oro, gero eta hobeto hezurmamitzen doan kerygma horren sakontzea da ezer baino gehiago, ez baitio inoiz uzten katekesi-eginkizuna argitzeari, eta lagundu egiten baitu katekesian lantzen den edozein gairen zentzua hobeki ulertzen. Giza bihotz orok duen betikotasun-gogoari erantzuten dion iragarpena da”* (EG 165). Gure lekuko Elizek kristau sarbideko prozesu garrantzitsu eta labaina nola garatzen duten aztertu behar dugu, alderdi guztiak kontuan hartuz: aldiak eta edukiak, katekisten prestakuntza eta motibazioa, parrokien, familien eta harrera eta lagun egiten dien elkartearen esku-hartzea, Jainkoaren ekintzara irekitzea, kristau bizitzaren alderdi guztien aurrerapen eta heldutzea.

73. Gure familietan eta gure elkarteetan fedea transmititzea garrantzitsua bada ere, beste leku batzuetara ere bidaliak gara Ebanjelioa iragartzera: giza bizitza garatzen den leku guztietara, bizitzako kanpoaldeetara, alde egin dutenengana edo inoiz hurbildu ez direnengana edo guri eta Ebanjelioari susmo txarra hartzen digutenengana. Gure lekuko Elizak benetan ebanjelizatzaileak diren hausnartu beharko dugu lehenik eta behin; Kristorengan agertzer a emandako Jainkoaren maitasuna beren-beregi iragartzen duten. Fedearen dohaina hartu ez dutenengana nola hurbil gaitzkeen ere aztertu behar dugu. Hausnar dezagun beste behin ere gure hizkera, guzti horiengana iristeko dugun era, elkartze pertsonalaren garrantzi erabakigarria, entzutearen, beren beharren eta kezken aurrean adi egotearen ezinbestekotasuna, eman behar diegun erantzuna, laguntasun eroapentsu eta itxaropentsua, eskain dezakegun testigantza, hitza eta pedagogia egokia. Askotan, ez datza metodoan, pertsonengan baizik; ez datza hainbeste egitarauetan, pertsonengan, eragile ebanjelizatzailearengan baizik: *“Nor bidaliko dut?”*, galdetzen du Jaunak, eta Isaias profetak erantzuten du: *“Prest nauzu, bidali neu”* (Ik. Is 6, 8). Berak sorraraziko ditu erak, hitzak, aukerak. Guk sareak bota behar ditugu Jainkoaren Hitzean konfiantza jarrita: *“Jo itsas zabalera eta bota sareak arrantzurako”* (Lk 5, 4). Ez gaitzen beldur izan eta jo dezagun leku ezezagunetara eta eskain diezaiegun biziaren hitza ezagutzen ez ditugunei. Leku horietara eta pertsona horiengana gara bidaliak Jainkoaren errukia hots egitera bere Hitaz fidaturik. Gu iritsi orduko, han izango dugu Jesus gure zain, eta nahi duen egintza gauzatuko du gure pobreziaz eta mugatasunaz baliatuz.

BUKAERA

74. Idazki hau bukatzean, 135 salmoa gogora ekarri nahi dugu. Salmo horrek, Jainkoak Israel Herriaren historian egin izan dituen gauza miragarriak gogoratzen dizkigu. Kontatzen den gertaera historiko bakoitzaren ostean, lelo bera behin eta berriz errepikatzen duen litania dator: *“Haren maitasuna betikoa baita”*. Geuk ere gure bizitzako historia gogora dezakegu, urrats bakoitza, gertaera bakoitza, Jainkoaren errukiaren adierazpena dela jabetuta. Poztasun, bake eta itxaropena irekitzen gaituen errukiarena. Jesusen ikasle izateak, Jainkoaren erruki eta maitasun hori iragartzen duen Ebanjelioaren lekuko eta misiolari bihurtzen gaitu guztiok (EG 120-121). Ebanjelio honek, Jesukristoren Berri Onak, edozein leku eta baldintzatako gizakien beharrik sakonenei erantzuten die. Frantzisko Aita Santuak San Joan Paulo II.aren aipua gogoratuz, dioenez: *“Misiolaria konbentzitu dago, badela dagoeneko Espirituaren eraginez pertsonengan eta herriengan itxarote bat, konturatu gabe baldin bada ere, Jainkoari buruzko, gizakiei buruzko, bekatutik eta heriotzatik askatzen duen bideari buruzko egia ezagutzeko. Kristo hots egiteko gogo beroa itxaropen horri erantzuteko uste osotik dator”* (EG 265). Egia da: Jainkoa beti doa aurretik. Bera dagoeneko, era misteriotsuan, oraindik ezagutzen ez dutenen bizitzan agertzen da, eta bizitza horretan jardun egiten du.

75. Jainkoaren Erreinua agertzera ematea da gure esku utzitako eginkizun eder eta liluragarria. Agindu honek muga guztiak gainditzen ditu; agindu hau, munduko azken mugalderaino iristen da. Biziki eskertzen dugu hainbeste eta hainbeste misiolariaren egiteko ederra; beraiek Jainkoaren errukiaren lekuko dira urruneko lekuetan eta Ebanjelioak bere barnean duen itxaropenaren, biziaren eta salbamenaren haziaren eramaile dira. Hain zuzen ere, Jainkoaren errukiak gizadiaren garai eta leku guztiak hartzen ditu eta Jainkoarengan osotasuna jadetsiko duen gizadiranzko, betierekotasuneranzko bidea irekitzen du.

76. Mariari erregutuz bukatuko dugu. Herri debozioak *Agur* errezatzen du, Maria Erregina eta Ama errukiorrari erregutuz. Bere sabel bedeinkatutik datorkigu Jesus, Jainkoaren Semea, jainko errukiaren giza adierazpena. Hauxe diosku Mariaz San Joan Paulo II.ak: *“Inork ez du Gurutziltzatuaren Amak bezala bizi izan gurutzearen misterioa, jainko zuzentasun haraindikoaren eta maitasunaren arteko elkartze harrigarria. Inork ez du berak, Mariak, bezala onartu bihotzez Misterio hori... Maria da, beraz, jainko errukiaren misterioa sakon ezagutzen duena. Badaki zenbat balio duen eta zein gorena den. Horregatik, Ama errukiorra ere deitzen dugu: Birjina errukiorra edo Jainkoaren Ama errukiorra”* (Dives in misericordia 9). Berarekin bat eginik, geuk ere pozarren hots egiten dugu Jainkoak beti erakusten duela guztionganako errukia: *“Jauna, beti kantatuko ditut zure maitasun-egintzak, gizaldiz gizaldi iragarriko leial zarela”* (Sal 88, 2). Bihotzez.

+ Francisco, Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako gotzaina

+ Mario, Bilboko gotzaina

+ Jose Ignacio, Donostiako gotzaina

+ Miguel, Gasteizko gotzaina

+ Juan Antonio, Iruña eta Tuterako gotzain laguntzailea

Edita: Editorial ESET

Apartado 86

01080 VITORIA-GASTEIZ

I.S.B.N.: 978-84-7167-164-6

Depósito Legal:

Preimpresión: Natalia Fernández

Imprime: San Martín Impresión Digital